

# On Manuel Lekuonari buruzko hitz batzuk

MURUA, Iñaki

Euskal Herriko Bertsozale Elkartearen izenean

Duela ia ehun urte hemen inguruko kazetari batek, donostiarra zehatz-mehatz esateko, honako zerbait idatzi zuen. Inbidia sortzen omen zioten alemaniar baserritar xumeek, gai baitziren lanak utzitako atsedendietan tabernara joan eta garagardoa edanez poetarik onenen poemak entzuten egoteko, Goethe, Schiller eta abar. Hemengo baserritarrek aldiz, sagardotegietara joan eta bertsolarien xinglekeriak entzunez ematen omen zuten denbora.

Min hartu zuen on Manuel Lekuonak. Hala aitortu zuen berak. Xinglekeria hitza entzuteak arima urratu ziola. Eta une hartatik bertatik bertsolariaren apologia egiten hasteko premia sentitu zuela. Ordurako hasia zen lanean. Ezagutzen zituen, umetatik, bertsolariak herriko plazan kantari. Eta asebetetzen zuten. Eta ezagutzen zituen Europa aldeko jakintsuek (Marcel Jousse frantziarrak, esaterako) ahozko literaturari buruz zituzten idazki eta teoriak.

Eta min hartatik, bertsolariak entzutearen esperientzia gozatzetik eta bere jakinduriatik abiatu zen «ahozko literatura» deritzan hori ez dela bigarren mailako literatura frogatzera. Hirurak ere aldekoak dira lanerako: mina, gozamina eta jakinduria. Bapo baliatu zituen on Manuelek.

Eusko Ikaskuntza eta Euskaltzaindiaren sorrera garaietan hasi eta hurrengo ia hogeitun urtean, XX. mendearen hasieran bertsolarietarako buruz zegoen ikuspegia itzulipurdikatu zuen:

*Euskera*. 2012, 57, 1-2. 77-79. Bilbo  
ISSN 0210-1564

- Mendeetatik zetorren usadioan kokatu zituen
- Eta kokatu zituen hornidurazko poesia eta «kopla zaharren» konpainian, ahozketasun zabalago baten eremuan.
- Ikergai bihurtu zuen bertsolaritzaren errima, erritmo, metrika, doinu...
- Eta onartu zien bertsolariei bizkortasuna eta injenioaz gain funtzio bat, hizkuntzari zegokionez, kulturari, gizarteari zegokionez, oro har.

On Manuelen lan hark sekulako ondorioak izan zituen. Inguruan, besteak beste, Aitzol zeukan. Eta Aitzolek segituan erabaki zuen, Manuelen lan teorikoetan oinarriturik, bertsolariek izan zezaketela poetek adinako (edo handiagoko) eragina herri xehearengan euskal pizkunde zeritzan hura indartzerako garaian.

Handik sortu zen 1935.ean jokaturako Lehen Txapelketa Nagusia.

Eta berrogeita hamar urte geroago, 1986koa antolatzeko asmotan sortu zen gurea, *Euskal Herriko Bertsozale Elkarte*a. Nire lagun batek, txantxetan, «galtzerdi zurien» finala deitzen dio Belodromoan jokatu genuen hari. Argazkiak dira salatari. Orduan gazte samarrak ginen bertsolari mordoxka azaltzen gara, nonbait ordurako modan ez zeuden galtzerdi zuri-zuriek.

Baina... esango nuke galtzerdi zuriena baino sotana beltzarena izan zela guk lehenengoz antolatu genuen txapelketa hura. Oso gogoan baitaukat, irabazleari txapela jartzeko Manuel Lekuona oholtzara igotzen hasi zenean zer sentitu genuen: *une garrantzitsua zela eta gizon haren ondoan egotearen harrotasuna*.

Bagenekien txapela jartzearen ardura emate soilagatik ez genuela genuen zorrik kitatzen. Bagenekien Bertsozale Elkarteko ohorezko lehen bazkide egin genuenean ere ez genuela zorrik berdindu. Zorrak berdintzen hasiko gara bertsolaritzaren iker-lerroak finkatu eta ikerlari gazte eta berriak bertsolaritzari buruzko azterketa sakonak egitera xaxatzen ditugunean. Horretan ari gara. Hori da gure lana eta zorrak berdintzeko modu bakarra: Manuel Lekuonak hasi eta iloba Juan Marik segi zuten bideari jarraitzea.

1986ko martxoko iluntze hartara itzuliz, Manuel sentibera sumatzen genuen hainbesteko jendetzaren aurrean. Sentibera eta apal. Geu ere apaltze-

raino. Eta ez zait sekula ahaztuko soin ttikiko gizon bihozbera hark, bere begirada hezearekin, zenbat *esan* zigun. Milesker on Manuel!

A, eta bukatzeko, 1986ko txapeldun berria, Xebastian Lizaso, egun hartan makurrarazi zuen bakarra ere bera izan zen!